14 / ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAK E-LEARNIN PLATAFORMA BERRIA ABIATU DU

16-17 / JOXE MARI AIZEGA, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREORDE AKADEMIKOA

18 / ORONA: GEROA IRUDIKATU BEHAR DUGU, BERRIKUNTZA ASMATZEKO



# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2006ko negua | 2. zenbakia



## UNIBERTSITATEAREN ERRONKA: NAZIOARTERATZEA


pertsonen enpresa
pertsonentzako enpresa
MAITE DUQUE-fabrikazioa
ULMA
Grupo ULMA • Pª Otadui, 3 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa) • Tel: 943 034900 • Fax: 943 780917 • www.ulma.es • grupoulma@ulma.es


KM
kulturunea
KOLDO MITXELENA
Kulturunea
gero eta hurbilago
KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditzakezu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto. Ikus: www.gipuzkoa.net/kultura
KOLDO MITXELENA Kulturuneko Liburutegiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: lam-pib@gipuzkoa.net
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura
Koldo Mitxelena Kulturunea- Urdaneta 9
20006 Donostia-San Sebastián
www.gipuzkoakultura.net

## AURKIBIDEA


03
Editoriala

04-05
Berriak

06
Iritzia · Juan Felix García
Fagor Elektratresnetako
I+Geko zuzendaria

07-11
Erreportajea · Nazioarteratzea

12
Mendeberri

13
GEP · Goi Eskola Politeknikoa

14
EZF · Enpresa Zientzien
Fakultatea

15
HUHEZI · Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea

16-17
Elkarrizketa:
Joxe Mari Aizega

18
Erakundeak · Orona-EIC

19
Ikerkuntza

20
Zerbitzuak

21
M.U. kirol zerbitzua

22
Agenda akademikoa


# VOCACIÓN INTERNACIONAL

La creación de una Europa basada en el conocimiento es, desde el Consejo Europeo de Lisboa de marzo de 2000, uno de los objetivos fundamentales de la Unión Europea.

La llamada Agenda de Lisboa insta a la participación de numerosos sectores, entre los cuales las universidades desempeñan un papel especialmente importante. Debido a que se encuentran en el centro neurálgico de la investigación, la educación y la innovación, se reconoce que las universidades se sitúan en el centro de la economía y de la sociedad del conocimiento, desde numerosos puntos de vista.

En este contexto se plantea la cuestión de la compatibilidad y la transparencia de los sistemas de reconocimiento de las cualificaciones (uno de los objetivos  del proceso de convergencia de Bolonia), así como los objetivos de movilidad de los estudiantes y los investigadores.

En este sentido, la movilidad de los estudiantes sigue siendo marginal en Europa. En 2000, sólo el 2,3% de los estudiantes europeos realizaban sus estudios en otro país europeo y, aunque la movilidad de los investigadores es superior a la de la media de la población, se mantiene a un nivel inferior al de los Estados Unidos.

Si las universidades quieren responder a los retos mencionados, es necesario que en todas sus actividades esté presente el componente internacional, que sean capaces de cooperar y competir internacionalmente.

Es este un proceso en el que las empresas ya están inmersas desde hace tiempo, y que hoy en día tiene una importancia vital. Basta recordar que la primera filial de Mondragón Corporación Cooperativa en el extranjero se crea en 1989 y actualmente son 58 las filiales y unos 12.000 los trabajadores en el exterior.

La vocación internacional ha estado presente en Mondragón Unibertsitatea desde sus orígenes. Antes incluso de la creación de M.U., los centros universitarios que hoy la integran impulsaban de forma decidida la formación internacional, con el Programa Goier, convirtiéndose en un elemento esencial de complemento de la formación recibida.

*"La movilidad de los estudiantes sigue siendo marginal en Europa. En 2000, sólo el 2,3% de los estudiantes europeos realizaban sus estudios en otro país europeo"*

Actualmente, con la aprobación de los nuevos planes estratégicos, la internacionalización es uno de los retos de primera magnitud para M.U. Es un reto que abarca a todas y cada una de las actividades que desarrolla la universidad.


MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

**MUniversitas**

**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • (23. p.k.) ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

**Koordinatzailea** Joxe Aranzabal | **Erredakzio kontseilua** Mila Arregi, Susana Azpilikueta, Idoia Peñakoba eta Gurutze Uribarren
**Laguntzaileak** Andrea Aginagalde, Xabier Sagarna, Eduardo Sanchez, Juan Ignacio Igartua, Txema Perez, Carlos García, Eneko Saenz de Argandoña, Pedro Arrazola, Patxi Aristimuno, Iñaki Arriola, Juan Felix Garcia, Iosu Lizarralde, David Sánchez, Iñaki Arenaza Nuño, Jose Luis Abaunz, Joxe Mari Aizega, Pili Sagasta, Izaskun Uribesalgo

**Tirada** 6.000 ale | **Lege gordailua** 6.000 | **Diseinua eta publizitatea** Arteman Komunikazioa
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** Ander Gillenea | **Moldiztegia** Gertu (Oñati)

## MCC-K LITERATURA SARIA ANTOLATU DU, 50. URTEURRENA OSPATZEKO

Mende erdi bete duela eta, MCCk literatura sari bat antolatu du M.U.ko irakasle eta ikasleentzat. Gai hartuta printzipio eta balio kooperatiboak, idazlana modu askotara aurkez daiteke: saiakera, erreportajea, ipuina, etab., lau eta sei orrialde artean, espazio bikoitzean eta Arial 13 letratipoa erabilita.

Lana apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar da M.U.ko errektoretzan, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Hiru sari banatuko dira deialdi honetan: lehen saria 1.000 eurokoa, eta beste bi akzesit, bakoitza 300 eurokoa. Horrezaz gain, lan irabazlea *TU Lankide* aldizkarian argitaratuko da.

Lanak paperean entregatuko dira, goitizenarekin.

## 'KOOPERATIBEN ENPRESA-EKONOMIA' LIBURUA



Este libro responde a una cuestión: "Si en las empresas capitalistas se funciona de una manera, ¿cómo se debería hacer en las empresas cooperativas?". El objetivo es el de profundizar en las claves de la economía de las empresas cooperativas que están más cerca de los principios tradicionales de colaboración.

---

Coordinación: Amaia Agirre, Baleren Bakaikoa eta Anjel Mari Errasti
ISBN: 84-689-4899-3
397 páginas • 1ª Edición
Año de publicación 2005
Materia: Gestión Empresarial
Precio IVA incluido: 25 euros + 3.15 euros de portes

BERRIAK

## IKASKETA ESPEDIENTERIK ONENAK: KUTXA SARIAK 2005

Aurten ere Kutxaren Gizarte Ekintzak ikasketa espedienterik onenak saritu ditu Gipuzkoako unibertsitate ikasleen artean.

40 ikaslek jaso dituzte sariak, horietatik 10 Mondragon Unibertsitatekoak. Denek ere 2004-2005 ikasturtean amaitu dituzte ikasketak.

Sari hauek emateko orduan Kutxak kontuan hartzen ditu Gipuzkoako fakultate, unibertsitate eskola eta goi eskola tekniko guztietan ikasketak amaitutako ikasle gipuzkoarren espediente akademikoak.

Orain 29 urte hasi zen ematen Kutxa sari hauek. Denborak aurrera egin ahala, argi ikusten da gero eta neska gehiago agertzen direla sarituen artean. Azken edizioan, esate baterako, 40 sarituetatik gehienak neskak izan dira, %67,5.

Kutxa sariak jasotakoen artean, lizentziadun berriek 1.350 euro jaso dituzte saritzat. Diplomadunek, aldiz, 1.050 euro.

Zorionak!



Aitor Arakistain, Ingeniaritza Automatika eta Industri Elektronikan



Aitor Urbieta, Ingeniaritza Informatikoa



Alaitz Lizarralde, Ingeniaritza Teknikoa Kudeaketa Informatikoan



Igor Lizasoain, Industri Ingeniaritza



Iñaki Estensoro, Ingeniaritza Industri Antolakuntzan



Nerea Uriarte, Ingeniaritza Teknikoa Telekomunikazio Sistemetan



Maider Arrizabalaga Hezkuntza berezia



Ane Ugalde Humanitateak Enpresa



Ane M. Aizpeurrutia Hizkuntzen Psikopedagogia



Estitxu Astigarraga, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza

## BAZENEKIEN?

### ■ MONDRAGON UNIBERTSITATEAK BULTZATUKO DUELA PROIEKTU BAT ENPRENDIZAJERAKO?

Mondragon Unibertsitateak proiektu bat lantzen ari da enprendizajea bultzatzeko, hau da, ikasleak enpresa sortzaile bihur daitezen ikasketak amaitu ondoren.

### ■ M.U.KO IKASLE BAT FINALERA IRITSI DELA BOMBAY SAPHIRA DISEINU LEHIAKETAN?

Ander Lizaso finalera iritsi da Bombay Saphira nazioarteko diseinu lehiaketan. Ander Ingeniaritza Teknikoa ikasten ari da, 2. mailan, Arrasaten, Industria Diseinua espezialitatean. Zorionak!



**TITULU OFIZIALAK.** Orain arte ez bezala, datorren urtetik aurrera M.U.k graduondoko lau titulu ofizial izango ditu.

ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

**ZAZPI MASTER OFIZIAL ESKAINIKO DIRA, ETA LAU DOKTOREGO PROGRAMA**

# GRADUONDOKO IKASKETAK ALDATU EGINGO DIRA DATORREN URTETIK HASITA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ERABAT BERRITU DU GRADUONDOKO ESKAINTZA. HORREN ARABERA, ZAZPI MASTER OFIZIAL ESKAINIKO DITU ETA LAU DOKTOREGO PROGRAMA, BESTE HORRENBESTE ARLOTAN.

Bolognako prozesuaren barruan —Italiako hiri horretan sinatu ziren hainbat itun Europako Hezkuntza Esparrua bateratzeko—, estatu espainiarrean onartu ziren bi arau, graduko eta graduondoko titulazioak arautzeko. Graduko titulazioak ordezkatu egingo du gaur arte zegoen titulazio katalogoa, baina oraindik ere lantzen ari da, Madrilen.

Graduondoko ikasketei dagokienez —horrela deitzen zaie masterrei eta doktore ikastaroei, hau da, ikasketen goi mailari—, hurrengo ikasturtetik aurrera unibertsitateek aukera izango dute graduondoko ikasketa berriak eskaintzeko. Orain arte ez bezala, gainera, bi graduondo mota egongo dira: unibertsitatearen titulu propio direnak, orain arte bezala, eta ofizialak.

Aukera berria baliatuz, datorren ikasturterako Mondragon Unibertsitateak prestatu du graduondoko programa berri bat, izaera ofizialekoa, honako esparrutan: Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa Aurreratua, Hezkuntza, eta Kooperatibismoa eta Gizarte Ekonomia.

Hemendik aurrera graduondoko tituluak ofizialak izango dira, orain arte ez bezala.

Ingeniaritzan, adibidez, bi master prestatu dira: Portaera Mekanikoa eta Materialak; eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak. Enpresa Kudeaketa Aurreratuan, berriz, master bat: Business Administrazioa, MBA. Hezkuntza arloan, bi master: Espezializazioa Kulturartekotasunean eta Eleaniztasunean, eta Ikerketa-espezializazioa Hezkuntzan. Eta, azkenik, Kooperatibismoa eta Gizarte Ekonomian bi master prestatu dira: Kooperatiba Enpresen Kudeaketa, eta Garapen Sozio-kooperatiboa.

Goian aipatutako lau esparruek eskainiko dute, gainera, doktore ikasketak egiteko aukera.

# RETOS DE FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS, Y PAPEL DE M.U.

El Grupo Fagor Electrodomésticos se encuentra en un momento clave de su historia. Fagor cuenta con una nueva dimensión. Tras la adquisición de la empresa francesa Brandt hemos duplicado el volumen de la empresa. Contamos con 12 marcas comerciales, somos líderes en varios mercados europeos y disponemos de 16 plantas productivas. Gracias a este paso, podemos resolver una de las grandes limitaciones que teníamos para coexistir en este sector tan competitivo, la dimensión.

Pero este paso viene acompañado de otro muy importante, la innovación. En 2005 Fagor decide poner en marcha un ambicioso proyecto de innovación que permite imprimir, aún más, un valor diferencial a nuestras marcas, tanto en producto como en servicio. Nace el proyecto Hometek. En este plan de innovación pretendemos, entre otras cosas, capacitarnos en disciplinas tecnológicas claves en los productos de nuestro sector. Por otra parte, abordaremos también proyectos que puedan ayudarnos a generar nuevas actividades en el futuro, como la domótica, que ofrece servicios avanzados para el hogar; rotártica, que ofrece sistemas de climatización a partir de energías renovables; Ibai, que fabrica un innovador centro de secado y desarrugado de ropa; Inoxlan, especialista en el tratamiento del Inox, con un catálogo de productos dentro del hogar y en el sector de la construcción. Se trata de un proyecto en red con recursos propios distribuidos principalmente en el País Vasco, Polonia y Francia; que es completado con una arquitectura de colaboraciones exteriores.



ILUSTRAZIOA: ARTEMAN

*"De Mondragon Unibertsitatea esperamos apoyo a la investigación, ideas, profesionales y proyectos conjuntos"*



**Juan Félix García**
Grupo Fagor Electrodomésticos
Director I+D+i

En efecto, nuestra capacidad innovadora se complementa con las colaboraciones con centros tecnológicos y universidades, como el caso de M.U., con la cual ya hemos establecido un acuerdo marco de colaboración. De M.U. esperamos varias cosas:

- Apoyo a la investigación básica en disciplinas propias de nuestro sector.
- Que sea fuente de nuevas ideas y conceptos en ámbitos como el diseño, que nos van a permitir crear los electrodomésticos del futuro.
- Profesionales que formen parte del proyecto Fagor en el futuro.

En 2005 hemos puesto en marcha conjuntamente el Aula de Diseño Hogar, destinada a la generación de ideas en el campo del diseño de electrodomésticos. Hay tres proyectos en marcha, seis alumnos implicados y dos profesores coordinando la actividad. En el año 2006 este mismo equipo lanzará un concurso de diseño de nuevas ideas y conceptos en el hogar. En el futuro iremos materializando con M.U. otros proyectos que nos ayuden a cubrir nuestras necesidades en el ámbito de la innovación.

# M.U.K ERRONKATZAT HARTU DU NAZIOARTERATZEA

## GERO ETA IKASLE GEHIAGO ARI DIRA OSATZEN GOI IKASKETAK ATZERRIAN: UNIBERTSITATE, IKERTEGI NAHIZ ENPRESETAN



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

Lehen nazioarteratzea elementu bat gehiago zen guretzat" dio Joxe Mari Aizega Mondragon Unibertsitateko errektoreordeak, "baina orain erronka bihurtu da, erronka nagusi". Hiru arrazoi ematen ditu Aizegak aldaketa hori justifikatzeko: batetik, Europako Goi Hezkuntza Esparrua osatu beharra; bestetik, Bologna, han sinatu baitziren hainbat konpromiso Europako goi hezkuntza bateratzeko; eta hirugarrenik, unibertsitatearen izaera bera.

"Jakintza bera globala da, ez du mugarik. Unibertsitateak horrekin egiten du lan. Beraz, ezin dugu pentsatu bailaran segituko dugunik. Irten beharra dugu", dio segurtasun handiz Aizegak.

Urte asko igaro dira Arrasateko misiolariek bidalita, Eskola Politeknikoak hainbat gazte venezuelar hartu zituenetik, hemen egin zitzaten ikasketa teknikoak. Harrezkero, ikasleen joan-etorria etengabea izan da hiru fakultateetan, nahiz eta trukeak azken urteotan hartu duen indarra. Joan den ikasturtean, esate baterako, 159 ikasle ibili ziren joan-etorrian ikasketak osatzeko. Kopuru txikia oraindik, baina inguruko unibertsitateenak baino hobeak kopuru erlatiboetan.

## NAZIOARTERATZE BATZORDEA

Fakultate bakoitzak programa bat du ikasleen nazioarteratzea kudeatzeko: *Goier,* Goi Eskola Politeknikoan; *Atzerrian Ikasi,* Enpresa Zientzien Fakultatean; *HUHEZI Atzerrian* eta *Truke Programa,* Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, azken hau Mundukide Fundazioarekin batera.

Denetan Goier programak du esperientziarik luzeena, 1972a ezkero ari baita lanean Goi Eskola Politeknikotik kanpora doazen ikasleekin.

Gaur egun, berriz, ahalegin hauek guztiak bateratzeko, unibertsitateak sortu du Narzioarteratze Batzordea, Joxe Mari Aizegak koordinatua. Bertan egiten dute lan Esther Olabarriak Goi Eskola Politeknikoan; Jean Michel Larrasketek Enpresa Zientzien Fakultatean; eta Arantza Mongelosek Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.



**EUROPATIK ARRASATERA.** Ezkerretik eskuinera, Bartosz Nimsz, Gabriella Bojanoswska, Piotr Jacko, Mikel Curutcharri eta Hubert de Ravel, Arrasateko campusean.




**GERO ETA IKASLE GEHIAGO.** Mondragon Unibertsitateak betidanik landu ditu harremanak nazioarteko unibertsitateekin. Goier 1972an sortu zen, kanpora zihoazen ikasleei laguntze aldera.



**HELBURUAK** Mondragon Unibertsitateak lau helburu bete nahi ditu bere ikasleak nazioartera bidalita. Batetik, ikasleek nazioarteko unibertsitateetan osatzea hemen jaso duten prestakuntza. Bigarrenik, ikasleei lan esperientzia bat eskaintzea atzerrian, bai goi eskoletan, bai ikertegietan nahiz enpresetan. Hirugarrenik, ikasleen kulturartekotasuna aberastea. Eta, laugarrenik, elkartasuna lantzea, Mundukide Fundazioak antolatzen dituen programak baliatuta.

Helburu horiek ziurtatze aldera, Mondragon Unibertsitateak hitzarmenak sinatu ditu Europako zein Ameriketako 45 unibertsitaterekin.

**ATZERRITARRAK GUREAN** Gure ikasleak joan ez ezik, nazioarteko ikasleak ere etortzen dira Mondragon Unibertsitatera ikasketak osatzera, unibertsitateak berak horrela nahita. Aurten, adibidez, Goi Eskola Politeknikora hiru ikasle etorri dira Poloniatik eta bat Maurizio Uharteetatik, denak ere Ingeniaritza ikastera. Ikasle horietako gehienek, gaztelania ez dakitenek, ingelesez hartzen ari dira eskolak. Gaztelania dakitenek, aldiz, gaztelaniaz.

Ikasle hauek bizi dira beste ikasle batzuekin batera, etxebizitzetan, eta batzuek bertan aurkitu dute lana. “Ondo datorkigu, diru apur bat irabazteko”. Pozik daude gainerako ikaskideek ondo hartu dituztelako, eta gustura sentitzen dira hemen. “Unibertsitatea txikia izanda, oso erraza da harremanak izatea irakasleekin. Polonian hitzordua eskatu behar izaten genuen irakasleekin hitz egin nahi izanez gero”, dio Gabriela Bojanowska taldeko neska bakarrak.

Beste egoera batean dago Mikel Curutcharry, Ipar Euskal Herritik etorria. Tolosako Unibertsitatean ikasia da, Frantzian, eta Mekanika Industriala bukatzera etorri da Arrasatera, besteak beste kooperatibismoak erakarrita.

Ikasle hauetako bakoitzak premia bereziak ditu, eta fakultateak prestatzen ari dira premia horiei modu egokian erantzuteko: etxebizitzak edo lana bilatzea dela, hiz- →

## M.U. COORDINA EL COMITÉ EUSKADI-AQUITANIA-NAVARRA

El Comité Euskadi-Aquitania-Navarra es otra muestra del esfuerzo que está realizando Mondragon Unibertsitatea para salir de las fronteras locales e impulsar espacios transfronterizos de colaboración universitaria.

El año pasado, Mondragon Unibertsitatea asumió la presidencia del Comité interuniversitario Euskadi-Aquitania-Navarra, un órgano institucional creado en 1994 para promover la coordinación universitaria entre las regiones firmantes. Joxe Mari Aizega, vicerrector de Mondragon Unibertsitatea preside dicho comité hasta el año 2007.

Un total de 10 universidades integran el Comité Euskadi-Aquitania-Navarra: cinco son de Aquitania (Universidad de Burdeos, Universidad M. De Mantaigne Burdeos 3, Universidad de Pau y de los Países del Adour, Universidad Victor Segales Burdeos 2, Universidad Montesquieu Burdeos IV), tres de Euskadi (Universidad del País Vasco, Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea), y dos de Navarra (Universidad Pública de Navarra y la Universidad de Navarra).

La firma en 1994 del acuerdo interuniversitario tenia un objetivo claro: crear un espacio universitario transfronterizo que permitiera la libre movilidad de los estudiantes, el reconocimiento de títulos, la validación de experiencias, el desarrollo de dobles titulaciones, la realización de tesis bajo un sistema de codirección, así como favorecer intercambios con el resto del mundo.

El compromiso de Mondragon Unibertsitatea durante los dos años de su coordinación es doble. De un lado, impulsar desde este órgano el proceso de convergencia europea. Un segundo reto es la potenciación de este espacio universitario regional en un motor del conocimiento e innovación mediante la realización y difusión de proyectos de investigación e innovación.

Las tres regiones que suscriben el acuerdo constituyen una región del Sudoeste de Europa de más de 60.000 km$^2$, y más de 5 millones y medio de habitantes. Las universidades firmantes, por otro lado, forman a 180.000 estudiantes.




kuntza eskolak prestatzea…, kontua da hemen dauden bitartean eroso senti daitezela.

### IRAKASLEAK ERE, NAZIOARTERA

"Gaur egungo gizarte globalizatuan jakintza garatu behar badugu, eta hori da gure erronka, unibertsitateari ezinbestekoa egiten zaio bere irakasleak atzerrira joatea, zer esanik ez ikerkuntzan ari diren irakasleak", dio Joxe Mari Aizegak erabat sinistuta.

Luxio Ugarte Eusko Jaurlaritzaren beka batekin joan zen Quebecera doktore ikasketak egitera. Lau urte egin zituen Laval Unibertsitatean eta doktore egin zen Antropologian. "Hasieran apur bat gogorra egin zitzaidan, hizkuntzaz eta kulturaz jabetu arte, baina oso esperientzia aberasgarria izan zen niretzat. Izugarri ikasi nuen, eta harrezkero saiatu naiz han ikasitakoa hemen aplikatzen". Luxio Enpresa Zientzien Fakultatean dihardu gaur egun.

Aizega bat dator Luxio Ugarterekin. Haren ustez, aberasgarria izan daiteke, oso, elkarlanean aritzea atzerriko irakasleekin eta ikertzaileekin. Prestakuntzaren ikuspegitik, noski, baina baita jakiteko kanpoan zer mentalitate duten ikertzeko orduan, eta lantzeko gaur egun ikertzaileak behar dituen harremanak.

"Konturatzen bazara", dio Aizegak, "Europan bultzatzen ari dira nazioarteko proiektuak, bertan hainbat herrialdetako ikertzaileak sar daitezen. Guk nahi dugu geure irakasleak ikerkuntza sare horietan sar daitezen". Bere iritziz, M.U. polito dabil arlo horretan, baina aitortzen du oraindik asko dagoela egiteko.

"Munduan oso unibertsitate punteroak eta berritzaileak daude gure jakintza arloetan, eta gure helburua da unibertsitate horiekin elkarlanean aritzea, onenekin kolaboratzea". Ez da erronka makala.



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

**FERNANDO CORTÉS.** Gaur egun Goi Eskola Politeknikoan ari da irakasle, ingeniari mekanikoa baita estruktura kalkuluetan. GEPen bertan ikasi zuen, baina espezializazioa Frantzian osatu zuen, Nantesko Ecole Centralen.

# MÁS ALLA DE LO ACADÉMICO

Era una época difícil: familias de capacidad adquisitiva humilde, un futuro que construir, el despertar de la crisis de los años 80... Nada parecía seguro en este país en vías de desarrollo; así considerado, al menos, por el Gobierno francés de aquella época.

Sin embargo, algunos visionarios de Eskola (recuerdo al director de la época, Mancisidor) tuvieron la certeza de que una formación personal y académica en el extranjero era una apuesta segura para el futuro, tanto desde una perspectiva personal como social, puesto que casi el 100% de los alumnos regresamos al valle, ahora que tanto se habla de endogamia.

Aún no siendo muy conscientes de lo que se nos avecinaba, cargamos la maleta de ilusión con la intención de volverla repleta de experiencia. Algunos partimos a Francia, a Nantes en mi caso concreto, para un periodo de siete años.

Dejamos atrás la familia, los amigos y la seguridad del valle para adentrarnos en una sociedad avanzada, de futuro, que hablaba un idioma impronunciable para mí en aquella época.

Éramos conscientes de que las habilidades académicas y diplomas que íbamos a adquirir no tendrían la misma validez en nuestro país de origen, pero no éramos conscientes de algo todavía más importante: este nuevo escenario exigía desarrollarnos y madurar en un contexto menos familiar, exigiendo una evolución personal por nuestra parte, algo realmente destacable de esta maravillosa experiencia.

La maleta con la que partimos, se nos estaba quedando pequeña...

Hoy, puedo comprender que el objetivo de Eskola iba más allá de una formación de estudios superiores de ingeniería; que el desarrollo de estas capacidades va más allá de lo estrictamente académico.

Reconozco y agradezco en este sentido la labor de Eskola de aquella época por la creación del proyecto Goier, orientado a facilitar la posibilidad de vivir estas experiencias en aquel momento histórico de incertidumbre económica. Agradezco igualmente el esfuerzo que actualmente están desarrollando desde Mondragon Unibertsitatea, para promover experiencias similares que nos permiten crecer en valores cooperativos más allá de nuestras fronteras.

*“Salir al extranjero no es una moda pasajera, una nueva panacea de los formadores del momento”*

Estoy convencido de que esto no es una moda pasajera, una nueva panacea de los formadores del momento. Estas experiencias parten de la base de que ya disponemos de suficiente formación académica y destreza para adentrarnos en el mundo laboral, y por el contrario, centran su atención en promover cualidades personales que nos capacitan saber vivir en el novedoso y desapacible clima laboral en el que nos movemos actualmente.

Por todo ello, animo a los alumnos de Mondragon Unibertsitatea a que consideren esta opción y ánimo a los que ya la han tomado! El final del camino no tiene precio!



**Iñaki Arriola**
Gerente de Ulma Manutención y miembro del Consejo Rector de M.U.

**MENDEBERRIK EBALUAZIO SISTEMAREN ERALDAKETA SUSPERTU DU**

# M.U.K EBALUAZIO SISTEMA ALDATU DU HEZKUNTZA PROIEKTU BERRIARI EGOKITZEKO

JAKINTZAREN ALDERDI GUZTIAK EBALUATU BEHAR DIRA: JAKITEA, EGITEN JAKITEA, LANKIDETZAN ARITZEA ETA IZATEA.

Hezkuntza proiektuak aldatzen direnean, ebaluazio sistemak ere aldatu behar dira, ezinbestean. Hezkuntza proiektu jakin baten funtsa ikaslearen formazio integrala bada, ez litzateke nahikoa izango jakintza teknikoa soilik ebaluatzea ikaslearen jarraipena egiteko. Beraz, ebaluazioak egokia behar du izan eta, gainera, funtzio nagusia du irakasleen zein ikasleen lana, kemena eta indarrak bideratzen dituelako.

Hori dela-eta, Mondragon Unibertsitateak ebaluazioaren objektua (zer), prozedura (nola) eta denboralizazioa (noiz) eraldatu ditu.

Objektuari dagokionez, honako konpetentzia hauen jarraipena egiten du: teknikoak, metodologikoak, partehartzaileak eta pertsonalak. Eta konpetentzia motaren arabera ebaluazio kuantitatiboak, kualitatiboak edo biak erabiltzen ditu.

Horretarako estrategiak abiatu eta eszenatokiak eta tresnak sortu ditu; adibidez, funtsezkoa da ikaslearengan hausnarketa suspertzea. Eta hausnarketa hori taldean eta maila indibidualean egiten da, hainbat tresna erabilita: gordailua, eztabaida, egunkaria, etab.

Mondragon Unibertsitateko fakultate bakoitzak erabiltzen dituen metodologien arabera, bere bidea egiten ari da etengabe ebaluazio integrala lortzeko helburua.

Horren isla da urrian Arrasaten Mondragon Unibertsitateak antolatu zuen Nazioarteko Mintegia ebaluazio sistemen inguruan. Bertan, Europako hainbat unibertsitatetako irakasleek parte hartu zuten beraien esperientziak eta gogoetak elkar-trukatuaz. Beti hobekuntza helburu izanik.



ARGAZKIA: ANDER GILLENEA

**IKASLE AKTIBOAK.** Mendeberrik funtsezkoa ikusten du ikasleengan hausnarketa suspertzea.

## CAN EVERYTHING BE ASSESSED?

The cultural dimension of the education process is important for the civil society and those students who mainly focus on their personal development and interests. Culture cannot be directly measured and therefore not assessed. However, through norms and attitudes culture influences the learning process, which in its turn influences the outcome of the education. (Hansen & Rosenorn, 2005).

**IKERTZAILE PRAKTIKOA.** Lehen urtea Ohio State Unibertsitatean egin zuen Andrea Aginagaldek, eta ezinbestekoa ikusten du ikertzaileak kanpora irtetea.



GEP GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

# HIRUGARREN ZIKLOAN HELBURUA DA IKERTZAILEAK PRESTATZEA

ANDREA AGINAGALDE INGENIARITZA INDUSTRIALEKO IKASKETAK EGIN DITU GOI ESKOLA POLITEKNIKOAN, ETA ORAIN 3. ZIKLOA EGITEN ARI DA. HONA HEMEN IKASLE DONOSTIAR HONEN ESPERIENTZIA IKERTZAILE MODUAN.

Ni hasi berria naiz ikertzaile lanetan, doktore tesia egiten hasi naiz eta. Beraz, niretzat oraingo hau ikerketa lanaren hasiera baino ez da.

Askok uste dute, oker uste ere, ikertzailea azkarra izan behar dela. Lan honetan, ordea, pazientzia eta fedea behar dira norberaren ideiak lantzeko eta defendatzeko. Borondatea ere behar da, zeren, nahiz eta zuzendari baten laguntza izan, jeneralean geure kabuz egingo baitugu lan. Diziplina ere beharrezkoa da, batzuetan nondik nora jo asmatu ezinik ibiltzen garelako.

Esperientziari dagokionez, aberasgarria da, oso. Ni hasi nintzen doktore tesia egiten unibertsitate hezkuntzan jardun nahi nuelako. Hala ere, ez dut baztertzen etorkizunean ikerkuntza izatea nire lanbidea, arlo irekia delako, sormen handikoa, eta beharrezkoa gaur egungo merkatuari aurre egiteko.

Uste dut kanpora joatea ezinbestekoa dela ikuspuntu berria garatzeko eta ikerkuntzan esperientziadunek nola lan egiten duten ikasteko.

Lehen ez bezala, gainera, gaur egun posible da hemen ere ikerkuntza egitea.

